

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Martzelino Zelaia Larrarte

*Ibarra,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Arginartatxen jaio, hazi eta bizi izan da gaur arte bere arreba [Pakita](#) eta [Iginia](#)rekin batera. Hamar senidetan zortzigarrena, senideek baino aukera gehiago izan zuen eskolara joateko. Erdaraz hobeto ikasteko, eskola partikularra jasotzera joan zen Zumera, gurasoek hala eskatuta. Gaztetxoa zela, osabaren etxean bizi izan zen urte pare batez, haiei lagunduz; hala, osabarengandik egurra lantzeko afizioa jaso zuen. 13 urterekin, lehengusuaren aroztegian hasi zen lanean Tolosako San Esteban auzoan. Ondoren, Belateko eta Leitzako aroztegietan aritu zen lanean. 35 urteren bueltan, bere aroztegia jarri zuen Amezketan. 62 urterekin erretiratu arren, oraindik ere, elkarrizketa garaian, gauza txikiak egiten ziharduen. Arotzaren ogibidea azaldu eta arotzaren nahiz baserriko tresnen izenen berri eman digu.

Zintak

IBA-006

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2011-12-22
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

IBA-007

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2011-12-22
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Osabari ikusten, ikasi

- **Erref:** IBA-006/002
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:00:15. **Bukatu:** 00:01:38

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Umetan osabaren etxera joaten zen; eta osaba soroko lanetarako tresnak egiten aritzen zen. Martzelinori hori gustatu; eta pixkanaka, arte hura ikasten joan zen.

2. Gurdia bere kabuz egin zuenekoa

- **Erref:** IBA-006/003
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:02:37

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Behin, Martzelino mendira joan, egurra bota, eta baserrira ekarri zuen, gurdi txiki bat egiteko asmoz. Gurrilak egiteko, nola-hala moldatu zen. Gerora, kaxa bat egin zion gurdiari, eta jolasteko erabiltzen zuten gurdi hura.

3. Zurgintzarako zaletasuna lanbide bihurtu zenekoa

- **Erref:** IBA-006/005
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:03:19. **Bukatu:** 00:04:48

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk

Laburpena:

13 urterekin, zurgintzarako zaletasuna lanbide bihurtu zitzaion. Aroztegi, baina, aurrerapenekin lan egitea arraro egiten zitzaion. Nahiago zuen makinarekin egin lan, askoz errazagoa baitzen.

4. Zurgintzako teknikak

- **Erref:** IBA-006/006
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:04:48. **Bukatu:** 00:06:10

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Arotz izateko, ikusi egin behar da lehenbizi. Denborarekin, teknikak menderatu egiten dira. Lehen lan egiteko zer pauso izaten zituzten azaltzen du.

5. Eskailerak egiteko erronka

- **Erref:** IBA-006/007
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:10:09

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Arotz-lanetan, zeregin errazena leihoak egitea izaten zen; zailena, ordea, eskailerak egitea. Tolosako Doroteo Amondarain arotzak eskailerak egiten zituen, eta haren tailerrera joan zen lanera Martzelino. Doroteorenean, asko ikasi zuen. Marrazketako klaseetara joan zen Martzelino, eta dezente jantzi zen plano-kontuetan; maisua ingeniaria zen, don Tomas Yarza.

6. Makina iristean, eskulana atzera

- **Erref:** IBA-006/008
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:11:03

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk

Laburpena:

Makina bidez hasi zirenean eskailerak marrazten, atzera gelditu ziren.

7. Hemengo haritzaren lehia

- **Erref:** IBA-006/010
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:13:05

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Hemengo haritza ona da lanerako, baina bere garaian bota behar da. Gerora, atzerritik oso egur ona hasi zen etortzen; eta aurea hartu zion hemengo egurrari.

8. Zuhaitzak bere garaian botatzearen garrantzia

- **Erref:** IBA-006/011
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:14:38

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:

Egurra garai txarrean botaz gero, harra sortzen zaio. Lehen Landetako egur asko jartzen zen; baina, denborarekin, ikusi da egur haiek ez zirela behar zen garaian botatzen; eta, horregatik, pipiak jo ditu.

9. Urtaroa eta ilargia, zuhaitzak botatzeko ardatzak

- **Erref:** IBA-006/012
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:14:38. **Bukatu:** 00:15:31

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:

Egurra neguan bota behar izaten da, ilargiaren egoerari kontuan hartuta.

10. Egurra vs zura

- **Erref:** IBA-006/013
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:15:31. **Bukatu:** 00:16:26

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:

<p>Egurra eta zuraren arteko aldeaz hitz egiten du.</p>

11. Aroztegiko produktuak eta materialak

- **Erref:** IBA-006/014
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:16:26. **Bukatu:** 00:19:15

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Natura » Flora

Laburpena:

Etxeko altzariak ere egiten zituzten aroztegian: logelako altzariak, ateak, solairuak... Baserriko tresnak egiteko, haritza eta makala erabiltzen zituzten. Baserriko tresnen izenak aipatzen ditu.

12. Aurrerapenei esker, astoek lan gutxiago

- **Erref:** IBA-006/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:20:58

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Lehen, astoak garraiatzen zituen gurdiak, eta hartarako kakoak egiten zituzten aroztegian. Aurrerapenekin, baina, behar hori galdu egin da.

13. Egurra mozteko tresnak

- **Erref:** IBA-006/017
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:20:58. **Bukatu:** 00:23:09

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Egurra mozteko zer tresna erabiltzen zuten azaltzen du. Haiek zorrozteko, nola-hala moldatzen ziren.

14. Zuhaitza non, nola eta zer preziotan bota

- **Erref:** IBA-006/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:23:09. **Bukatu:** 00:25:24

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Zuhaitza botatzeko, bi lagun behar izaten ziren. Zuhaitzak hainbat basotatik ekartzen zituzten. Beraiek baso partikularretatik ekartzen zituzten normalean. Orduko prezioak.

15. Zuhaitza nola garraiatu?

- **Erref:** IBA-006/019
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:25:24. **Bukatu:** 00:27:02

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basora oinez joaten ziren zuhaitza botatzera. Zuhaitza idi parearekin garraiatzen zuten.

16. Enborrak Ibarrako zerrategira

- **Erref:** IBA-006/020
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:27:02. **Bukatu:** 00:27:50

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Enborrak botatakoan, zerrategira eramaten zituzten. Ibarran bazen zerrategi bat, eta normalean hara egur asko joaten zen.

17. Egurra garraiatzeko tresnak

- **Erref:** IBA-006/021
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:28:33

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Egurra garraiatzeko, zer tresna erabiltzen zituzten aipatzen du.

18. Egurra lantzeko prozesua

- **Erref:** IBA-006/022
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:28:33. **Bukatu:** 00:30:00

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Zerrategian, egurra lantzeko prozesuaz hitz egiten du.

19. Egurra neurtzeko teknikak

- **Erref:** IBA-006/023
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:32:19

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Egurra lantzeko neurriez hitz egiten du. Egurra neurtzeko teknika bereziak erabiltzen zituzten batzuek.

20. Zurgintza aurrerapenak iritsi aurretik

- **Erref:** IBA-006/024
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:32:19. **Bukatu:** 00:33:58

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Arotz-lanak eskuz egiten zituzten garaian, zer teknika eta tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

21. Egurra xaflatzen

- **Erref:** IBA-006/025
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:33:58. **Bukatu:** 00:35:02

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Egurra xaflatzeko zer egiten zuten azaltzen du.

22. Zurgintzan aldaketa handiak

- **Erref:** IBA-006/026
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:35:02. **Bukatu:** 00:36:40

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk

Laburpena:

Lehendik hona aldaketa asko egon dira arotzerian; bereziki, aurrerapenetan. Gaur egungo makinekin, askoz azkarrago egiten dira lanak.

23. Soldadutzako bizimodua

- **Erref:** IBA-006/027
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:39:06

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzara joan zenean, ilea moztu zioten. Bakoitzari buzo bat eman zioten; oso gogorra egiten zitzaien soldadutzako bizimodua. Orduko eginkizunak eta ohiturak aipatzen ditu.

24. Soldadutzan ere arotz

- **Erref:** IBA-006/028
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:39:06. **Bukatu:** 00:41:09

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzan, aroztegian egotea tokatu zitzaion. Arratsaldeetan libre egoten ziren, eta merienda jatera joaten ziren. Orduko janariaz hitz egiten du.

25. Soldadutza = denbora galtzea

- **Erref:** IBA-006/029
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:41:09. **Bukatu:** 00:42:38

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzan ia bi urte egon zen Martzelino, beraiek esan arte. Eta eskerrak bukatu zen soldadutza. Intsumisioa gauza ona iruditzen zaio, denbora galtzea iruditzen baitzitzaion hura. Behin, hilabeteko baimena izan zuten etxean egoteko, baina 8 pasa zirenerako, berriro itzultzeko abisua iritsi zitzaien.

26. Soldadutzan erdara egiteko komeriak

- **Erref:** IBA-006/030

• **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:42:38. **Bukatu:** 00:43:48

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzan zebilen garaian, erdara gutxi zekien, eta ahal zen bezala moldatzen zen. Baziren batzuk, ordea, erdaraz tutik ez zekitenak. Gaur egun, oraindik ere elkartzen dira soldadutzako lagunak.

27. Soldadutzara... zertara?

- **Erref:** IBA-006/031
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:43:48. **Bukatu:** 00:44:59

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzari buruzko iritzia ematen du. Ez zituzten ondo tratatzen, eta alferrik eraman zituzten hara, ez baitzuten ezer erabilgarririk ikasi.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com